



MENDEKUA ORDAINETAN

Jon Ander Urkiaga Egidazu



I. ZATIA

1. Tartalo

Ustekabeen etorri zitzaion Gorkari lehenbiziko ukabilkada. Bere izena entzun eta atzera begiratu zuenean, sentitu zuen aurpegi gainera erori zitzaiola hormatzar bat. Iskin egiteko aukerarik gabe eta zer gertatzen ari zitzaion jabetu ezinik heldu zitzaion goitik behera boxeolari batek ere hobeto joko ez lukeen ezker *crocheta*. Ezin izan zion orekari eutsi. Pauso baldar bi atzerantz, eta plausta erori zen lurrera, behar beste aizkorakada jasotako zuhaitz bat balitz bezala.

Kilima antzeko zerbait sentitu zuen sudurretik behera, odolaren zapoaren aurrekari. Senak eskumako eskua ezpainaren goialdera eramanez zion, eta, begirada eskuari zuzendu zionean, alde guztietara zabaltzen ziren errekatxo gorriak ikusi zituen, umel, itsaskor.

Inguruan dena zen oihu, zarata, iskanbila. Baina ez zen ezer entzuteko gai. Autoen joan-etorria, txirrin hotsa, edukiontzi berdea husten ari zen kamioia... *Emaiok berriz! Goazen bizkor! Hori jipoia hori! Pasatu egin haiz, txotxo!* Dena oihu, zarata, iskanbila.

Arratsaldeko lau eta erdiak inguru ziren. Udaberri beteko egun sargoria. Txirrinak jo berri zuen, eta ikasleak trumilka hasi ziren irteten, zein bere bidean. Lurretik altxa nahian,

ukondoen gainean jarri zuen momentu hartan gorputz baino gehiago gorpu zenaren pisua. Kokotsa altxatu zuen, begirada goratu, baina eguzkia ere kontra zuela iruditu zitzaion, aurrez aurre, izpiak haren aurka jaurtitzen. Begiak erdi zabalik, erdi itxirik eta izerdi tantak bekokitik behera, pare-parean zeukan duela bost minutu eskas gelakide zuena. Eguzkiaren eraginez, gerizpetan ikusten zuen silueta erraldoia, basotik jaitsitako Tartalo handi-mandia balitz bezala.

—Ibil zaitetz kontuz, baboa! Bakoitzak jakin behar du zein den bere lekua, eta zu gehiegi ari zara gerturatzen marra gorrira... Neurea dena neurea da, eta, zuhurtziaz ez bazabiltza, zure ametsik gaiztoena izatera iritsiko naiz!

—Tira, Xabier, goazen! Irakasleren bat ere laster irten-go da, eta, arazorik nahi ez baduzu, onena izango duzu hemendik alde egitea!

Metro batzuetara zegoen txirrinduak lotzeko tokia. La-saitasun osoz zuzendu zen bertara Tartalo, azterketa batetik irten eta 10eko nota ziurtzat jotzen duenaren harrokeriaz. Giltzarrapoa askatu, gainean jarri, pedalei eragiten hasi, eta, Gorkaren aldamenetik igaro zenean, tu egin zion aurpegira. Urruntzen zihoan bitartean, ez zion begiradarik kentzen K.O. utzi berri zuen gelakideari. Nagusikeria sentazioak aurpegian marraztu zion irribarre maltzur hura edonor ikaratzeko gai zen.

Amak urtebetetze egunean oparitu zion kamisetaren behealdearekin garbitu zuen aurpegian zeukan listua Gorkak. Odol arrastoak ere agerian geratu zitzaizkion oihalean. Hutsaren hurrengo zela sentitzen zuen. Jasotako kolpeek baino min handiagoa egiten zion errudun sentipenak. Ba-

rregarri ikusten zuen bere burua institutu osoaren aurrean. Zikin, ahul. Bere burua defendatzeko adorerik izan ez duenaren lotsa sentitzen zuen.

Korrika bizian gerturatu zitzaion Aitziber. Kamisetatik oratu, eta beregana hurbildu zuen, zilborra zilborraren kontra. Aitziberrek berak jaso zizkion lurretik barreatuta zituena karpeta eta koadernoak, eta, bildu beharrekoak bildu ondoren, eskumako besoa gerritik inguratu, eta ibiltzeari ekin zioten. Delituaren eszena atzean utzi nahi zuten, inolako deliturik egin ez arren.

Bost bat minutu egin zituzten oinez: ez galderarik, ez azalpenik. Bost minutu isiltasunean murgildurik, harik eta herriaren kanpoaldeko arboladi batera heldu ziren arte. Haritz biren artean zegoen iturrira gerturatu zen Gorka, eta esku ahurrak bata besteari itsatsiz pilaturiko urarekin freskatu zuen aurpegia. Berriz ere ahurrak bete, eta adatsa blaitu zuen. Izan ere, lohi sentitzen zen, ugerrak gorputza estali balio bezala.

Orduan, Aitziber eserita zegoen aulkira zuzendu zituen pausoak, soa lagunaren begietan iltzaturik zuela. Aurpegia ur ziprirtinez beterik zuen, baina Aitziber berehala jabetu zen ur tantekin batera negar anpuluak ere tokia hartzen zebiltzala Gorkaren begietan. Ahoa dardarka hasi zitzaion. Erreak zetozkion begietatik irristan.

Besarkada estu eta luze batean urtu ziren adiskide biak. Aitziberren eskuak Gorkaren lepoa laztantzen zebiltzan, belarriek Gorkaren negar zotinak entzuten zituzten bitartean. Musuz josi zuen Gorkaren ezker masaila. Halako batean, Gorkak aski zela erabaki zuen, ez zuela bere buruaz

errukitzen jarraitu nahi, eta besaurrearekin lehortu zituen malkoak.

—Erotu egin al da Xabier, Gorka? Zerbait gertatu zai-zue? Manexek kontatu dit zer ari zen gertatzen, eta berehala abiatu naiz zuengana, baina berandu iritsi naiz.

—Ikusten duzun hau baino ez da gertatu —erantzun zion Gorkak bere piura erakustearekin batera—. Institututik irteten ari nintzela hasi zait kolpeka. Inolako arrazoirik gabe. Kontuz ibiltzeko esan dit, besterik ez... Baina zerekin kontuz, Aitziber? Zerekin? Inori ez diot minik egin, ez dut inorekin arazorik... eta, hala ere, txiki-txiki egin nau mundu guztiaren aurrean...

2. Bizikleta istripua

Tabakorria zorrotik atera, eta zigarro bat biltzeari ekin zion Aitziberrek. Amaitzear zen maiatza, eta eguraldiak gonbit erakargarriagoa egiten zuen arratsaldeak edozein belarditan etzanda igarotzeko etxe barruan ikasten emateko baino. Onartu beharra zitzaion ikasketetarako baino abilezia handiagoa zuela zigarretak biltzen eta kearekin iruditxoak eraikitzen. Eskerrak txuletak egiten behintzat trebea zena, eta are iaioagoa haiek erabiltzen. Baina Gorkak estimu handitan zuen. Bihotzez maite zuen ume-umetako laguna. Gauza asko leporatu zekizkiokeen Aitziberri, baina haren bihotz ona ezin zitekeen zalantzan jarri.

Ahalik eta bizkorren ahaztu nahi zuen Gorkak pare bat ordu lehenago gertaturikoa. Ezer gertatu izan ez balitz bezala bukatu eguna. Ohera sartu, eta dena amets gaiztoa izan zela sinetsi. Baina ezin zion utzi arropa zikinak begiratzeari: odol orbanak, lurrean pilatutako lohia... Sudurra ere guztiz minbera zuen, eta, eskuarekin ukitu zuenean, bazekien ziurrenik handituta izango zuela. Bat-batean, arduraz beteriko keinua nagusitu zitzaion aurpegian.

—Zaude lasai: etxean ez dute ezertxo ere jakingo —buruan jira-biran zer zerabilen esan gabe ere, Aitziber atoan jabetu zen Gorkaren ezinegonaz—. Edo bai: dena dena kontatuko diegu. hobeto esanda...